

Justizia eta mendekua

Euskaldunon Egunkaria, 1997-12-09: 3.

Justizia, funtsean, bakoitzari berea ematea da. Gizakiaren oinarrizko eskubide xume honek dirudi errazen erabil dezakeguna, baina praktikan ez da hala gertatzen. Euskal presoekin ez behintzat. Ez gara euskal presoek etxeko hurbiltasunaz bakarrik ari, hau berez nahiko zuzena eta garrantzitsua den arren, etxetik hurbil egon behar lukeen abantailaz gain gaixotasunaz krudelki jota dagoenari eta justiziaren pena legez dagoeneko bete duen horri, horiei, zor zaie bete-betean justizia aurrena, eta berea dena ukatzen zaie. Ez da hau bakarrik gertatzen. Hain berea dena ukatuz egiten zaien injustizia honez gain, berria den beste zerbaiten usaina, kiratsa!... mendekuaren kolore horia ari da arazoa hartzen, mendeku politikoarena, hain zuzen, demokrazia batean justizia bilakatu daitekeen armarik bilauena.

Herri honen preso eta hauen senide minen garrasiak alferrikakoak gertatu dira, urteetan zehar, orain arte, eta hau beste alderdiaren krudelkeriak aitzakia direla zuribide. Nola justifika daiteke legez krudelkeria bat, dagoeneko zigortzen ari direna!, beste batekin?

Eta aginte moral demokratiko baten izenean.

Justiziaren huts batetik mendekuaren bestera pasatzeko nahikoa da zubi estu meharra, gizartean okerreko bide hau oso ezaguna da. Bide honetatik askotan kontzientzia justu pasarazten duen arrazoi bakarra Estatuaren Santutasuna da, egia gezur eta inbento pobre bilakatzen dena. Eguberriaren zentzua ere errespetatzen ez denean ez da giro erregeei baliozko ezer eskatzeko.

Nola joko dugu, fedea erre eta Estua aldareztatu diguten honetan, armaz sekula ezer irabazi ez duen herri txiki baina biribil oso den honetan?